

ZUBEROA, POPULAZIO DENTSITATE APALEKO GUNEA

Gaian sartzeko, irudikapenak agerraraz:

Ikasleen irudikapenen, bizipenen eta ezagutzen erabiltzea baliagarria da ikasleak ikasteko urraspidean ezartzeko. Jarduera honek gaiaren nondik norakoa erakutsi behar du: zertan diren gaiari buruz eta zer lortu behar duten. Halaber, ikasleen bizipenetatik eta idurikapenetatik abiatuz, gaia konkretuago eta motibagarriago bihurtzea da helburua.

• Egin-moldea:

Gaian sartzeko bideak eta euskarriak ugari dira, are gehiago geografian. Aktualitateko berri batetik has daiteke, edozein euskarritik abiatuz, ikasleei galdera(k) eginez edo argazkia(k) erakutsiz.

Garrantzitsuena hau da: jardueraren biribiltzea gaiaren helburuari lotuz; horretarako, ikasleen gogoetak baikorki erabiltzea eta denen ekarpenak balioztatuz. Adibidez:

1. adibidea: Berri bat irakurraraz edo entzunaraz. Tokiko laborantza lurrei dagozkien arazoei buruzko berria izan daiteke, adibidez Kanboko Marieniako aferaz edo aktualitateko beste bat. Ondotik galderak egin, adibidez: *Zergatik ez dira kontent Kanboko biztanle batzuk?*

2. adibidea: Galderak eginez. *"Populazio dentsitate apaleko eremua"* entzuten duzularik, zer pasatzen zaizu gogotik? *Nola bizi da jendea holako eremuetan? Betidanik horrela izan ote da? Arazorik ba ote dute bertako biztanleek? Zer dira eremu horien abantailak?...*

3. adibidea: Argazkia(k) erakuts. Adibidez: txosteneko 1. dokumentuaren argazkia erakuts (edo beste bat) eta galdegin: *Nahi ote zenuke han bizi? Zergatik?*

• Ikasle guziek parte hartzen dutela segurtu:

Edozein sartzetatik abiatuz, denen partehartzea galdetu behar da. Agindua edo galderak arbelean idatz, gako-hitzen bidez saio kaieretan erantzutea eska eta epe laburra eman.

• Ikasleen gako-hitza arbelean bil:

Ikasleen gogoeta guziak kontuan hartu behar dira, hots, ez da zuzenketa; erantzun guziak egokiak dira. Ikasleek aldizka hitz bat idatziko dute arbelean, edo idazkari batek (edo bik), edo irakasleak berak. Ondotik, gako-hitza gaika antolatzen saiatuko da kolore desberdinez inguratuz (garraioak, jarduerak, arazoak, abantailak...). Helburua hau da: irudikapen horiek gaiaren helburuari eta problematikei lotzea. Horregatik, ezinbestekoa da irakaslearen rola jardueraren biribiltzeko.

Interesatzen zaizkigun ezaugarriak ez badira agertu ikasleen hitzetan, ahozko galderak eginez osatzen ahal da. Adibidez:

- Landaguneetako zerbitzu eskasak arazoari buruz: *Zuen ustez, eremu horretan bizi izanez geroz, zenbat kilometro egin behar da zinemara, medikura edo lizeora joateko?*
- Gaur egungo jarduera berriei buruz (landa turismoa, naturari dagozkion jarduerak): *Egon ote zarete jada holako eremu batean? Noiz? Zeren egiteko?*

Galderak ikastetxearen kokapenaren arabera moldatuko dira: gaia ez dugu berdin abiatuko Atharratzeko kolegioan edo Hendaiakoan, ikasleen bizipenak arras desberdinak baitira.

I. Zuberoan bizitzeko zailtasunak

Problematika

Zer dira mendialdean bizitzeko zailtasunak?

Xerka ezazu!

1. **1. dok. - 3. dok.:** Dokumentuak erabiliz, azal ezazu zergatik Zuberoa populazio dentsitate apaleko gunea den.

Dentsitate apaleko gunek kilometro karratuko 30 biztanle baino gutiago dituzten lekuak dira. Lehen dokumentuko legendan idatzia da Basaburuan (Zuberoako eskualde menditsua) populazio dentsitatea % 8koa dela, eta grafikoaren arabera, % 21 pasakoa da Zuberoa eta Nafarroa Behereko mendialdean.

2. Paisaiari begiratu, zein elementuk erakusten du Zuberoako mendialdea dentsitate apaleko gunea dela?

Paisaia horretan natura da nagusi. Etxe gunek ttipi bat baizik ez da (bizpahiru etxalde).

3. Paisaiari begiraturik, zure ustez, zergatik jende guti da han bizi? (bizpahiru hipotesi idatz)

Hipotesiak: han jende guti bizi da mendigunean delako, urrun delako, hango bizia zaila delako...

4. **3. dok.:** Euskal mendialdearen dinamismo demografiko eskasa azal ezazu bizpahiru datu erabiliz.

Populazioaren bilakaera (2009-2014):

Zuberoa eta Nafarroa Behereko mendialdean populazioa ez da handitzen (% 0). Larraineko populazio hazkundea - 0,2koa da; Frantziakoa, aldiz, % 2,5koa.

Populazioa zahartzen ari da: 75 urtez goitiko biztanleen proportzioa % 14,5 da Zuberoa eta Nafarroa Behereko mendialdean, Frantziakoa oro har % 9,3 delarik.

Bigarren etxebizitzaren proportzioa gorago da Zuberoan (% 16) Frantziako batezbestekoa baino (% 9,4).

Horrek erran nahi du etxe hetsi anitz badirela hango herrietan. Alde batetik horrek ez du herriko dinamika laguntzen; bestetik, lurraren prezioa goititzen du (kanpotiarrek erosteko ahalmen gehiago dutelako) eta hango gazteei zailago zaie etxebizitzaren erostea.

5. **4. dok.:** Zure ustez, zergatik "medikuntza basamortua" aipatzen ahal da euskal mendialdearen kasuan? Fenomeno hori azal ezazu maparen laguntzaz. Testuaren arabera, zein dira Zuberoan desagertzen ari diren beste zerbitzuak?

"Medikuntza basamortua" erraten da eremu batean biztanleko mediku kopurua apala delarik.

"Medikuntza basamortua" aipatzen ahal da testuak diolako medikuak erretretara joaten direla eta ez direla ordezkatuak.

Bestalde, mapak erakusten du medikura joateko biztanleek zeharkatu behar duten distantzia, Zuberoako mendialdea 25 kilometro baino zabalago baita.

Eskola da desagertzen ari den beste zerbitzua.


6. **5. dok.:** Nor eta nola saiatzen da osasungintzaren eskasei buru egiten?

Erakunde publikoek bi osasun etxe ireki dituzte: Euskal Hirigune Elkargoak, Europako erakundeek, Akitania Berria Eskualdeak eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduak, besteak beste.


7. **6. dok.:** Zergatik manifestatu zuten Atharratzeko ikasleek 2023-2024 ikasturtean?

Kolegioko 3. mailako gela elebidun bat hetsi zutelako.

Gaitasuna : **Eskema bat eraiki**



Populazio dentsitate apala duten guneen zailtasunak eskema batean erakutsi itzazu. Laguntza: Lehenik zailtasunak hiru multzo hauetan sailka: berezkoak, populazioari eta zerbitzu eskasari doazkionak.



II. Zuberoa balioztatzen da

Problematika

Nork eta nola balioztatzen ditu baserri guneak?

Xerka ezazu!

1. **1. dok.:** Zer dira Zuberoako jarduera ekonomiko berriak?

Jarduera ekonomiko berriak bereziki aisialdiei eta landa turismoari dagozkie: eskia, ibilaldiak... jarduera horiek gero eta ugariago dira.

2. **2. dok.:** Zergatik gero eta erakargarriago dira populazio dentsitate apaleko guneak?

Gaur egun bizi ingurumen kalitateari gero eta garrantzia gehiago ematen zaiolako eta lurraren prezioa merkeago baita. Joera hori azkartu da 2020ko COVID pandemiaren geroztik.

3. **3. dok.:** Hitzegiaren laguntzaz azal ezazu zertan dituzten Idoki eta Ossau-Iraty sareek laborariak laguntzen.

Marka horiek produktuak kalitatezkoa direla bermatzen dute. Horrela, ekoizpenak arabiarako prezioan saltzen dira (erosleak badaki zer erosten duen eta nola ekoitzi den). Manera horretan laborariak babesten dira, baita ingurumena ere (segurtatzen baita pestizidarik ez dela erabiltzen).

4. **4. dok.:** Azia elkarteak aurkez ezazu.

Zuberoako elkarte bat da, helburu duena gazteei han ikasteko aukeren ezagutaraztea, eta Zuberoan berean lanaren aurkitzeko erraztasunak ematea.

5. Azpimarra Azia elkarteak lantzen dituen argumentuak gazteak Zuberoan egon daitezten.

Aziaren arrakasta tokiko kulturari eta hizkuntzari eman garrantziari lotua zaio, Zuberoako erroei atxikirik.

III. Erabilera gatazkak

Problematika

Zer arazo sortzen dituzte jarduera berriek?

Xerka ezazu!

1. **1. dok.:** 1. Zer gertatu zen 2020ko uztailean?

Larraineko auzapezak Holtzarteko zubiaren hesteko agindua eman zuen.

2. Zer argudio erabili zuen Larraineko auzapezak?

Larraineko herrian den Holtzarteko zubiak turistak saldo handian erakartzen ditu eta horrek segurtasun eta hordarkin kudeaketa arazoak sortzen ditu. Zuberoko leku bisitatuenetarik bilakatu da Holtzarteko zubia. Turistak trumilka jiteak 197 biztanle baizik ez dituen Larraineko herrira, Jean-Dominique Iriart auzapeza kezkatzen du.

"Jende kopurua ikusirik, segurtasunak kezkatzen nau, bereziki ibiltari kopuru handia ikusirik, zubiranzko zirkulazioa handia delako. D26 errepidean zerbait gertatuko da azkenean eta deiadarra jo nahi dut. Hainbat kilometrotan bi auto lerro ikusten ditugu usu, bata goiti joaten eta bestea jausten. (...) 30 kilometrotan zikinontzi bakarra duen eremu bakarra dago, eta hau garbiki kontraesanean da garapen jasangarriarekin" azaldu du auzapezak.

2. dok.:

3. Zein jardueren artean da oreka bilatu behar turismoa jasangarria izateko? (Argudia zure erantzuna) Nekazaritza jardueren eta aisialdi jardueren artean (batak bestea behar du).

4. Zer da erabilera gatazkaren konpontzeko proiektua?

Euskal mendiaren parke naturala, bi jardueren arautzeko eta orekaren atxikitzeko.

IV. Euskal Mendia parke naturalaren proiektua

Problematika

Zertako sor Euskal Mendia parkea?

Xerka ezazu!

1. dok.:

1. Nor da Euskal mendiaren batzordearen ordezkaria? Zein dira politikaren helburu nagusiak?

Battitt Laborde Sarako auzapeza.

2. Zein proiektuk ez du oraindik adostasun osoa lortu?

Parke naturalaren proiektuak.

3. Zer dira parke naturalak eta zertako sortzen dira?

Eremu baten eta bertako biziaren babesteko egiten den arautegi zorrotza.

2. dok.:

4. Nor da proiektuaren kudeatzaile nagusia? Eta beste eragileak?

Euskal elkargoa, ondotik: Departamendua, Eskualdea, Estatua eta Europako Batasuna.

5. Kolore desberdinez testuan azpimarra **jendeari**, **ekonomiari** eta **naturari** doazkien helburuak.

- Tokiko biztanleei **herriak eta haranak irisgarri bihurtzea**, laborarien, enpresen, zein artisauen instalazioa erraztuz, **hurbileko zerbitzuak bermatuz**, **jendarte dinamikoa izatea** **belaunaldien arteko transmisioa bermatuz**.
- **Jendeen eta baliabideen babestea**, klima aldaketak edo baldintza meteorologikoek eragin arriskuei buru eginez (mendiko suteak, uholdeak...).
- **Mugaz gaindiko eguneroko bizitzaren bermatzea**, azpiegitura eta kudeaketa komunak sortuz, eta zerbitzu hurbilak eskainiz.
- **Bizikidetzaren bermatzea** mendiko jarduera ekonomikoen artean, hala nola laborantzaren eta aisialdiaren artekoa.
- Mendiko ekonomia dibertsifikatuaren sustatzea, mendiko artzaintzan, egur ustiapenean, tokiko artisautzan eta urte osoko turismoan oinarritua; jarduera horien sustatzeko, etxaldean transmisioa erraztea, laborantzari lehentasuna emanez eta tokikoa lehenetsiz.
- Laborantzari doakion **bioaniztasunaren zaintzea**: fauna, flora eta ur-inguruneak.

V. Perspektiban ezartzea

Problematika

Zein dira Frantziako populazio dentsitate apaleko guneak?

Xerka ezazu!

1. eta 2.dok.:

1. Dokumentuak pareka itzazu. Parke natural nazionalen kokapenari begira iezaiozu. Zer lotura da parkeen eta populazio dentsitate apaleko guneen artean? Zure ustez zergatik bada lotura hori?
Parke Naturalak poulazio gutiko eremuetan kokatzen dira: Hutsunezko diagonalean eta mendiguneetan bereziki. Eremu horietako natura minbera da. Parkeen arautegi zorrotzek natura babesten dute eta jardueren arteko gatazkak saihesten.

Zuberoako dinamismo demografiko eskasa

	Zuberoa eta Nafarroa Behereko mendialdea	Lorraine	Frantzia
Dentsitatea	21,3 bizt./ km ²	1,5 bizt./km ² (Insee 2021)	106,5 bizt./km ² (Insee 2021)
Populazioaren bilakaera (2009-2014)	% 0	-% 0,3	+ %1,84
15 urtez petiko biztanleak	% 5,7	% 14,2	% 23
65 urtez goitiko biztanleak	% 14,5	% 39,5	% 22
Hilabete sariaren batez bestekoa	1.560 €	1.741€ (departamenduan)	2028 €
Bigarren etxebizitzak	% 16	% 59,3 (Insee 2021)	% 9,7 (Insee 2021)
Zahartze indizea		171	86,3